



Mendaroko UDAL BULETINA

2024ko otsaila



Aurkibidea

Zuhaitz Egun baten ordeaz, bi

Zestoako Udalak, Itziarko Auzo Udalak eta Mendaroko Udalak elkarlanean antolatuta, bi zuhaitz egun ospatu dira aurten, otsailaren 3an Zestoan, eta 4an Mendaron.

Olatz Bizkarguenaga, zinegotzi berria Mendaron

Javier Muñozek kargua utzi ostean, Olatz Bizkarguenaga zinegotzi izendatu dute urtarrileko ohiko osoko bilkuran. Aurreko legealdian oposizioan egon ostean, berriro ere batuko da Gobernuko lan taldera.

Aurrera pausoak Santa Ana Baselizaren inguruko lanetan

Enetz Ezenarro alkatea Gipuzkoako Ondare Historiko-Artistikoa Saileko arkitektoarekin bildu da Santa Ana Baseliza birgaitzeko proiektuaren inguruan hitz egiteko.

Mendaro Udalbiltza Partzuergoan sartu da

2024ko urtarriletik aurrera Mendaro euskal erakunde nazionalaren parte da.

Alegazioak URA Agentziaren saneamendu-proiektuari

Mendaroko Udalak, alegazioak aurkeztu dizkio Uraren Euskal Agentziaren «Elgoibar eta Mendaro arteko Debabarreneko saneamendu-proiektuari».



Zuhaitz Egun baten ordeztu, bi

Zestoako Udalak, Itziarko Auzo Udalak eta Mendaroko Udalak elkarlanean antolatuta, bi zuhaitz egun ospatu dira aurten, otsailaren 3an Zestoan, eta 4an Mendaron.

Zestoako eta Itziarko herriak urteak daramatzate baso politika egiten, basoak berreskuratzeko lanetan, eta Naturtzaindia elkartearen bitartez, Mendaroko Udalak hauengana elkartzea erabaki zuen.

Proiektaren helburu nagusia gure basoak basoberritzea da, bertako zuhaitzak sartzea. Azken hamarkadetan, ia lurralde osoa okupatu eta hondatu dugu, eta aldaketa klimatikoaren testuinguruan, oso argia da zein eragin dituen gure ekosistemekin amaitzeak. Horiek lehengoratzeko da helburua, horrek, biodibertsitatearen ikuspuntutik, egoera hobetzea ekarriko duelako. Horretarako, bertako basoak berreskuratzea da intentzioa; eta bide batez, umeei parte hartzen duten heinean, aukera ederra da etorkizuneko belaunaldiak gure lurra zaintzearen garrantzia ezagutzeko.

Zestoako Udalak, Itziarko Auzo Udalak eta Mendaroko Udalak elkarlanean antolatu dituzte bi irteerak, Naturtzaindia elkartearen laguntzarekin. Duela hilabete batzuk ezkur bilketak egin ziren udalerrri hauetan, eta mintegi batean landareak garatu ostean, gure basoetan landatzea tokatzen da.

Mendaron, 2024ko otsailaren 1ean



Olatz Bizkarguenaga, zinegotzi berria Mendaron

Javier Muñozek kargua utzi ostean, Olatz Bizkarguenaga zinegotzi izendatu dute urtarrileko ohiko osoko bilkuran. Aurreko legealdian oposizioan egon ostean, berriro ere batuko da Gobernuko lan taldera.

Azken osoko bilkuran aho batez onartu zen Olatz Bizkarguenaga udal zinegotzi gisa, eta Javier Muñoz ordezkatu du Mendaroko Udal Gobernuan. Aurreko legealdian oposizioan egon zen Bizkarguenaga, eta EH Bildu alkatetzan egoteak ilusioa piztu diolako erabaki du berriro ere udalera itzultzea.

Lurraldetasun batzordean arituko da batik bat, etxebizitzari, ingurumenari edota ekonomia garapenari dagozkion gaietan. Zarautzko udaletxean hirigintzan aritu zen lanean duela urte batzuk, eta gaur egun, Azpeitiako udaletxean dabil lanean. Erronka berria gogotsu hartu du Bizkarguenagak; eta argi dauka zeintzuk diren herriak dituen erronka nagusiak: “Etxebizitza parkea zaharkituta dago, eta eraberritzea ezinbestekoa da. Bestalde, ekonomia suspertzeko, jarduera eta neurri berriak hartu behar direla uste dut”.

Mendaron, 2024ko otsailaren 5ean



Udalbatzako aktak ikusgai udalaren webgunean

Ikusgai daude jada ohiko osoko bilkuren aktak Mendaroko Udalaren webgunean.

Zinegotzi berriaren onarpenaz gain, otsaileko udalbatza, bi aldaketa berri onartu ziren: batetik, ohiko osoko bilkuren data aldatzea. Orain arte, hilabeteko azken ostegunean burutzen ziren bilkurak; hemendik aurrera, ordea, azken asteartean izango dira. Bestetik, hemendik aurrera aktak publiko egitea erabaki zen.

Urte askotako eskakizun bati erantzunez, bilkuren aktak osorik argitaratuko dira aurrerantzean. Jada eskuragai daude azken lau udalbatzetako aktak, Mendaroko Udalaren web gunean. Enez Ezenarro alkatearen hitzetan: “Orain arte, akten laburpenak besterik ez ziren argitaratzen. Jendearen eskaria bazen aktak osorik argitaratzearena, eta horregatik egin dugu aldaketa. Aktak interesgarriak dira, hartutako erabakiak ikustez gain, alderdiek izan dituzten iritzi eta eztabaidak ere jasotzen dituztelako; gardentasun ariketa bat da, azken finean”.

Mendaron, 2024ko otsailaren 5ean



Aurrera pausoak Santa Ana Baselizaren inguruko lanetan

Enetz Ezenarro alkatea Gipuzkoako Ondare Historiko-Artistikoa Saileko arkitektoarekin bildu da Santa Ana Baseliza birgaitzeko proiektuaren inguruan hitz egiteko.

2023ko azaroaren 14an, Mendaroko Udalak, mendarotarrei udaletxera gerturatzeko gonbita egin zien, Santa Ana Baseliza birgaitzeko prozesuari buruz hitz egiteko. Argi geratu zen herritarren interesa, pleno aretoa guztiz bete baitzen.

Baseliza, azken aldiz, auzolanean konpondu zen 1982an, eta gaur egun ez dago batere egoera onean. Azken urteetan ezin izan da bertan mezarik eman, segurtasun arazoengatik.

Gipuzkoako Ondare Historiko-Artistiko saileko arkitektoa Mendaroan izan da Santa Ana Baselizaren egoera aztertzen; adituaren arabera, baselizak ez du aberia handirik: teilatua konpondu, egoera txarrean dauden egurrak aldatu eta beste lan osagarriren bat egitearekin nahikoa izango da. Obra hori egiteko, udala *babestutako ondarea birgaitzeko* diru laguntzetara aurkeztu behar da, eta horretan jarriko da Mendaroko Udala datozen hilabeteetan.

Udal gobernuaren asmoa, Santa Ana Baselizan egin beharreko lanak ahal bezain laster gauzatzea da, eta bere eskuetan dagoena egingo du hori lortzeko.

Mendaron, 2024ko otsailaren 7an



Mendaro Udalbiltza Partzuergoan sartu da

2024ko urtarriletik aurrera Mendaro euskal erakunde nazionalaren parte da.

Euskal Herria burujabe bat eraikitzeko bidean, Udalbiltza Partzuergoak Euskal Herriko garapen eta barne kohesioa sustatzea ditu helburu nagusi. Horretarako, euskal lurraldea zatitzen duten hiru eremu administratiboetako udalen arteko elkar ezagutza eta lankidetzak instituzionala bultzatzen ditu.

Mendaroko Udalaren abenduko Osoko Bilkuran aho-batez erabaki zen Udalbiltza Partzuergoarekin eta bere estatutuekin bat zetorrela, eta bertan sartzeko eskaera luzatu zion partzuergo horren Kontseilu Nagusiari.

Jada onartu da Mendaroko udalerraren atxikimendua, eta beraz, Mendarok Udalbiltzaren parte izatearen eskubide eta betebeharrak bereganatu ditu.

Enetz Ezenarro alkateak uste du Mendaro Udalbiltzan egotea oso garrantzitsua dela: “Honek aukera zuzena emango digu beste udalerrri batzuetan aurrera eraman diren proiektu interesgarri asko, gai oso estrategikoetan, geure egiteko”.

2024ko otsailaren 12ean



Alegazioak URA Agentziaren saneamendu-proiektuari

Mendaroko Udalak, alegazioak aurkeztu dizkio Uraren Euskal Agentziaren «Elgoibar eta Mendaro arteko Debabarreneko saneamendu-proiektuari».

Saneamendu-proiektu berriak arazo garrantzitsu bati ematen dio irtenbidea: hondakin-uren ponpatze-estazioen (HUPE) bitartez, batetik, saneamenduaren konexioa hobetzea dakar, eta bestetik, Debabarreneko eremu osoan isuriak ezabatuko dira; Mendaroko Udalak balio handiko proiektua dela uste duen arren, hura berrikustean, hobetu daitezkeen zenbait alderdi aztertu dira, eta udalak aldaketa proposamenak aurkeztu dizkio URA agentziari alegazioen bitartez.

Oro har, udalak aurkeztutako alegazioen asmoa, saneamenduaren konexioa hobetzea eta bizilagunei eta inguruneari ahalik eta kalte gutxien egitea da. Hori dela eta, aurkeztutako alegaziorik esanguratsuen Garagartzan instalatuko den HUPEaren ingurukoa da. Mendaroko Udalaren arabera, proiektuak ez du behar bezala aztertzen ponpatze-estazioaren eta Mendaroko Haurreskolaren arteko hurbiltasunak eragin ditzakeen kalteak (bai eraikitze-aldian eta baita funtzionamendu garaian ere). Besteak beste, ingurumen-inpaktuari dagokionez, azpiegiturak zarata egin dezake, eta proiektuak ez du justifikatzen azpiegiturak kalitate akustikoaren helburuak betetzen dituenik.

Ondorioz, udalak uste du planteatutako kokalekua ez dela egokiena herritarren interesetarako, eta beraz, alde guztientzat konponbide egokiagoa ekar dezaketen aukerak aurkeztu dizkio URA Agentziari.

Proiektuari alegazioak aurkezteko epea martxoaren 6a arte egongo da zabalik. Mendaroko Udalak gonbita egiten die interesa duten herritarrei, saneamendu-proiektua ezagutu eta egoki irizten zaizkien alegazioak aurkezteko. Proiektua Ura Agentziaren web orrian kontsulta daiteke.